

# HERENTZIA GENETIKOAREN EREDUA

## Herentzia mitokondrial

Mitokondriek kate bikoitzeko DNA zirkularreko molekulak dituzte, 37 generentzat kodifikatzen dituztenak. Gaixotasun mitokondrialak gene nuklearretan eta mitokondria-genomaren geneetan gertatzen diren mutazioek eragin ditzakete. Mutazioak gene nuklearretan badira, herentzia mendeliarra izango da; gene mitokondrialetan badaude, berriz, amarena izango da herentzia. Zelula bakoitzak mitokondria kopuru aldakorra izan dezake, eta mitokondria bakoitzean DNA mitokondrialaren zenbait kopia egon daitezke.

Herentzia mitokondrialak hiru ezaugarri nagusi ditu:

- **Amaren herentzia** da, obuluak ematen baititu mitokondriak.
- **Erreplikazio-bereizketa**: zelula bat zatitzen denean, mitokondrien banaketa guztiz aleatorioa da zelula berrietan.
- **Homoplasmia eta heteroplasmia**: mutazioa mitokondria guztietan dagoenean gertatzen da homoplasmia; heteroplasmian, berriz, mitokondria mutatuak eta mitokondria normalak batera agertzen dira. Mitokondria gehienak mutatuak badira, mutazioak ondorioak ekarriko ditu. Zenbat eta handiagoa izan mitokondria mutatuaren kopurua, orduan eta handiagoa izango da eragina.

